

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Elementu kimikoen egitura elektronikoa aztertuz, taula periodikoak ematen duen informazioa eta sailkapena ikertu eta azaldu.	<p>1.1. Elementu kimikoen egitura elektronikoa aztertuz, taula periodikoak ematen duen informazioa eta sailkapena ikertu eta azaldu.</p> <p>1.2. Egoki irudikatu du atomoen konfigurazio elektronikoa, kutxa-diagramaren bidez.</p>
2. Elementu kimikoen ezaugarri berezigarriak aztertuz eta ikertuz, konposatu kimikoak osatzen dituzten atomoen arteko lotura kimikoak nola eraten diren arrazoitu, beti ere konposatuen egitura eta propietateak azaltzeko.	<p>2.1. Egoki deskribatu du substantzian sortzen den lotura kimikoa, konfigurazio elektronikoan oinarrituta.</p> <p>2.2. Ondo irudikatu du substantzia, Lewisen egituraren bidez.</p> <p>2.3. Egoki arrazoitu du eraten den loturaren eta substantziaren propietateen arteko erlazioa</p>
3. Erreakzio kimikoen mekanismoak eredu atomiko-molekularraren bitartez interpretatuz, betetzen dituzten lege kuantitatiboak aztertu, kalkulu kimikoak egiteko eta teoriak zientziaren garapenean duten balioa eta garrantzia balioesteko.	<p>3.1. Ondo kalkulatu ditu masa kopuruak, unitate desberdinetan eta lege kuantitatiboaren arabera.</p> <p>3.2. Zehaztasunez doitu du ekuazio kimikoa.</p>